

Donostia, 2020ko irailaren 18a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, MARTUTENEO LEGEZ KANPOKO ZABORTEGIARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegik, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta Martutenen legez kanpoko zabortegia izatearen gaineko KONTROL MOZIO hau dakar, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) interpelazioa egin eta gero.

JUSTIFIKAZIOA

Martutenen (Barkaiztegi bidean, garai batean Lanbide Heziketako Institutuaren sarrera zen tokitik gertu) legez kanpoko zabortegi bat zela ohartarazi zion Eguzki elkarte ekologistak Udalari otsailerako.

COVID 19 birusaren pandemiak eragindako geldialdia ulertu arren, Udalaren jarduerak ia erabat normal jarrita daude martxan berriz ere, baina, hala ere, han ez du ezer ere egin, ez eta han den zaborrik handik kendu ere. Horregatik, abuztuaren 26an berriro salatu zuen elkarte ekologista horrek zabortegiak han segitzen zuela.

Aurreneko aldiz salatutako egunetik ere denbora dezente joan denez –6 hilabete handi–, uste dugu Udalak zerbait egin eta kendu egin behar dituela Martuteneko legez kanpoko hondakindegian diren zaborrak handik. Hala, Gune Publikoaren Batzordeak hil honetan izan duen bileran egindako interpelazioari, Bide Publikoetako zinegotzi eskuordeak erantzun zion Udalak bazuela legez kanpoko zabortegi haren berri, baina han botatuko gauzen artean uralita zegoenez, enpresa espezializatu

batek haiek handik seguru bildu zain zeudela. Harrituta geratu ginen toki hartan material arriskutsua zegoelako eta hilabete hauetan guztietan batere isolamendurik edo babesik gabe izan direlako. Hori dela eta, guk uste dugu, aurren-aurrena, babes neurri batzuk hartu behar direla, eta, hurrena, lehenbailehen kendu handik legez kanpo botatako material horiek.

Gainera, azkeneko urteotan legez kanpoko zaborteziak ugaritzen ari dira gure hirian (hor ditugu Belartza II-koa, Mendiolako putzukoa eta abar). Ondorioz, guri iruditzen zaigu derrigorra dela ingurumenaren zaintza gogortzea, orain gertatu dena bezalakorik ez gertatzeko berriro.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio babes elementu batzuk jartzeko, Barkaiztegi bideko zabortezi legez kanpokoan botata diren zaborra arriskutsuak isolatzeko modukoak, harik eta haiek handik kendu arte.
2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio Barkaiztegi bidean botatako materialak lehenbailehen eta seguru kentzeko handik.
3. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio neurri batzuk hartzeko hiriko ingurumenaren zaintza gogortzeko, deus ere ez botatzeko legez kanpo.

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia